ISEI - IVEI

# Rs2.2.2. CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2. MAILAN: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA.

ISEI·IVEI

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

**Edizioa: 2014ko martxoa**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Mª Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
Eduardo Ubieta

**Sarrera** **4**

**Rs2.2.2.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* eta dimentsioetan (*Irakurmena, Entzumena eta Idazmena*) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.** **6**

**Rs2.2.2.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** **7**

**Rs2.2.2.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** **8**

**Rs2.2.2.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.** **9**

**Rs2.2.2.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.** **10**

## GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011 eta 2013[1].

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia*n duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011 eta 2013n gauzatu ziren Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila dituen eskala batean.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, konpetentziaren dimentsioak (entzumena, irakurmena, idazmena), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtearen arabera), geruza (hezkuntza-sarea[2] eta irakasteredua[3]), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.

EAEn 2009, 2010, 2011 eta 2013. urteetan, DBHko 2. mailako ikasleen % 44,2, % 46,3, % 46,5 eta % 47,5, hurrenez hurren, sare publikoan zeuden, eta % 55,8, % 54,8 eta % 53,5 eta % 52,5, itunpeko sarean.

Batez besteko puntuazio orokorrak (250 puntu 2009an; 252 puntu 2010ean eta 254 puntu 2011n) apurka igotzen joan dira. Berriz, 2013an (253 puntu), puntu 1 jaitsi da. Neskek mutilek baino puntuazio handiagoak lortu dituzte, aldea murrizten joan bada ere: 6 puntu 2009an; 4 puntu 2010ean; 3 puntu 2011 eta 2013an.

Konpetentziaren hiru dimentsioei dagokienez (*Irakurmena, Entzumena, Idazmena*), lau ebaluazioetan zehar *Irakurmenean* (251) eta *Entzumenean* (256) batez besteko puntuazioen hobekuntza bat izan da; *Idazmenean*, berriz, proba urtero aldatzen denez, ezin da konparatu eta batez besteko puntuazioa 250koa da beti. Puntuaziorik altuena (258) 2011n *Entzumenean* izan da. Neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte *Irakurmenean* (2009an 13 puntu gehiago) eta *Idazmenean* (2010 eta 2013an 20 puntu gehiago). *Entzumenean*, berriz, mutilek neskek baino 4 puntu gehiago lortu dituzte 2009an, puntu bat gehiago 2013an eta puntuazio berdina (258) 2011n.

*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia*ko erdiko mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera apurka igotzen joan da: 2009an, % 84,0; 2010ean, % 87,9; 2011n, % 88,1 eta 2013an jaitsi da % 85,1etara, 1,1 puntutara 2009ko gainetik garatuz. Hasierako errendimendu-mailan mutilen ehunekoa, lau ebaluazioetako batez bestekoa, neskena baino 3,3 puntu handiagoa izan da. Erdiko mailan

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm

[2] EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

[3] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).

eta maila aurreratuan, berriz, nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa izan da, aldea txikia bada ere: 1,5 puntukoa erdiko mailan eta 1,8 puntukoa maila aurreratuan.

*Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia*n geruzetan, lau urteetan izandako batez besteko puntuazioen bilakaerari dagokionez, puntuaziorik altuenak itunpeko A eta B ereduetan izan dira, eta gero itunpeko D ereduan eta D eredu publikoan. Batez besteko puntuaziorik altuena (264) 2011n itunpeko A ereduan izan zen, eta apalena (214) 2009an A eredu publikoan izan zen. 2009-2013 aldiko bilakaera positiboa izan da geruza guztietan B eredu publikoan izan ezik.

2013.eko Ebaluazio diagnostikoetako erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: ISEK indize altua du (% 90,4), gurasoek goi mailako ikasketak egin dituzte (% 89,8), adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 89,0), Euskadin jaioa da (% 86,1). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 62,9), irakasmaila errepikatu du (% 67,8), etorkina da (% 73,5), eta bere ISEK indize baxua du (% 78,8). *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzia*ren kasuan, dirudienez, etxeko hizkuntzaren aldagaiak ez du eraginik.

## Rs2.2.2.1 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian eta dimentsioetan (Irakurmena, Entzumena eta Idazmena[4]) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | Guztira | **250** | **252** | **254** | **253** |
| | Neskak | 253 | 254 | 256 | 254 |
| | Mutilak | 247 | 250 | 253 | 251 |
| *Irakurmena* | Guztira | **250** | **252** | **252** | **251** |
| | Neskak | 257 | 255 | 255 | 254 |
| | Mutilak | 244 | 249 | 249 | 248 |
| *Entzumena* | Guztira | **250** | **252** | **258** | **256** |
| | Neskak | 248 | 253 | 258 | 256 |
| | Mutilak | 252 | 252 | 258 | 257 |
| *Idazmena* | Guztira | **250** | **250** | **250** | **250** |
| | Neskak | 258 | 260 | 257 | 260 |
| | Mutilak | 243 | 240 | 243 | 241 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.

[4] *Idazmena* proba urtero aldatzen denez, batez besteko puntuazioa 250 da beti.

## Rs2.2.2.2 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | Errendimendu maila HASIERA | | | Errendimendu maila ERDIA | | | Errendimendu maila AURRERATUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2009 | **16,0** | 13,4 | 18,3 | **54,7** | 55,7 | 53,8 | **29,3** | 30,8 | 27,9 |
| 2010 | **12,1** | 10,6 | 13,5 | **59,4** | 59,9 | 58,9 | **28,5** | 29,5 | 27,6 |
| 2011 | **11,9** | 10,3 | 13,5 | **58,6** | 59,3 | 57,9 | **29,5** | 30,4 | 28,7 |
| 2013 | **14,9** | 13,7 | 16,0 | **55,7** | 56,6 | 54,9 | **29,4** | 29,7 | 29,0 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.

## Rs2.2.2.3 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 |
|---|---|---|---|---|
| A Publikoa | 214 | 223 | 220 | 227 |
| B Publikoa | 243 | 243 | 246 | 234 |
| D Publikoa | 247 | 249 | 250 | 250 |
| A Itunpekoa | 256 | 258 | 264 | 260 |
| B Itunpekoa | 258 | 260 | 262 | 259 |
| D Itunpekoa | 251 | 255 | 257 | 255 |
| Guztira | 250 | 252 | 254 | 253 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.

## Rs2.2.2.4 taula:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.**

| | | Ikasle % | | | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | | 2013 | |
| ISEK | Maila baxua | 17,8 | 19,0 | 18,1 | **15,6** | 21,2 | 58,1 | 20,7 |
| | Maila ertain baxua | 22,5 | 21,5 | 22,0 | **25,1** | 17,6 | 55,8 | 26,5 |
| | Maila ertain altua | 27,8 | 28,5 | 28,6 | **27,3** | 14,9 | 57,4 | 27,8 |
| | Maila altua | 31,8 | 31,0 | 31,2 | **32,0** | 9,6 | 53,2 | 37,2 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | 80,5 | 79,9 | 81,4 | **81,8** | 11,0 | 55,6 | 33,4 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | 19,5 | 20,1 | 18,6 | **18,2** | 32,2 | 56,5 | 11,3 |
| Titulartasuna | Publikoa | 44,0 | 45,3 | 45,3 | **44,2** | 18,3 | 56,3 | 25,4 |
| | Itunpekoa | 56,0 | 54,7 | 54,7 | **55,8** | 12,2 | 55,3 | 32,5 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | 3,1 | 3,0 | 3,4 | **3,1** | 37,1 | 52,6 | 10,3 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 16,7 | 15,7 | 17,7 | **15,5** | 23,2 | 59,0 | 17,8 |
| | Batxilergoa, HZ | 31,9 | 32,6 | 36,3 | **34,1** | 14,6 | 59,7 | 25,7 |
| | Goi mailako ikasketak | 41,7 | 41,5 | 42,6 | **47,3** | 10,2 | 51,8 | 38,0 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 93,2 | 92,6 | 92,3 | **93,1** | 13,9 | 55,7 | 30,5 |
| | Emigratzailea | 6,8 | 7,4 | 7,7 | **6,9** | 26,5 | 55,8 | 17,7 |
| Familia-hizkuntza* | Euskara | 15,0 | 19,7 | 19,9 | **21,8** | 15,1 | 56,6 | 28,3 |
| | Euskara **EZ** dena | 82,6 | 76,3 | 80,1 | **74,8** | 14,6 | 55,4 | 30,0 |

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013.

## Rs2.2.2.4 grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, hezkuntza-sarea, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2013. urtea.**




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2013.